



JOSU SANTESTEBAN

Fermin Erbiti

KAZETARIA ♦

Urkullu, faborez, kasu egin Axularri!

GEROKO GERO leloan oinarritu da Barcina Euskalerrira Irratiari eginiko lapurretaz galdetu zaionean. Nafarroako Gobernuak, “beti bezala”, Epaitegi Gorenaren erabakia beteko duela esan du. Momentuz, gaia zerbitzu juridikoen esku utzi omen du, haiei dagokielako hemendik aurrerako bidea argitzea.

Bulego batera sartzen ikusi dut presidentea. Abokatu-burua ordenagailuaren aitzinean idazten ari da, atzeko apalategian *Aranzadixen* bilduma osoa duela. Apaingarri hutsa, noski, legelari zaharrak ere Internetez maitemindu zirenetik ez baita liburutegietan horiei hautsa kentzen dionik.

Tira, kontua da presidentea ikustean legelari nagusiak idazteari utzi diola, diputazio-buruaren esanetara jartzeko. “Aztertu epaia eta egin edo zer Euskalerrira Irratiak lizentziarik gabe segi dezan”. Horixe izan da batere sorpresarik eragin ez dion agindua.

Irratien aferan, beraz, nafar agintariak denbora galzten saiaturiko dira, ataka horretatik “beti bezala” (alegia, txapuzaren bat eginez) nola atera asmatu arte. Ezagutzen ditugulako badakigu: epaileek beharturik ere, nekez hartuko dute euskarari arnasarik eman diezaioken erabakirik. Justiziaren epe onartezinak eta guztiok ordainduriko bitartekoak dituzte alde.

Irudikatzen hasita, euskarazko komunikabideen istorioetan pixka bat atzera eginez, eguberri bezperetara joan naiz, Urkullu eta Barcinaren arteko solasaldiaren *lekuko* izateko. Eusko Jaurlaritzak jende askok espero zuen albiste iragarri berri du: bihurtik, ETBren seinale digitala Nafarroa osoan hedatuko da. Behingoz, Parlamentuak berak aunitzetan eskaturikoa bete egingen da. Erabakia ezagututa, Barcina sutan jarri eta lehendakariari deitu dio, Jaurlaritzak atzera egin dezan. Urkulluk baiezkota eman dio. Orain, nonbait, bi gobernuek batzorde bat sortuko dute gaia aztertzeko. Geroko gero hemen ere, aspaldiko esaerak gogoratzen digunez: zerbait konpondu nahi ez baduzu, sortu batzorde bat.

Axularrek esana badakigu ez duela “deusek ere hainbat kalte egiten ari-mako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko uzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak”. Barcinarekin zer eginik ez dagoenez, Urkullurengan jarriko dugu esperantza, noizbait urdazubiarraren gomendioa kontuan hartuko duelakoan.

Izan ere, euskarazko komunikabideen egoera larriegia da Nafarroan luzamendutan segitzeko. Zirt edo zart egiteko garaia heldu da. ■

Barcinarekin zer eginik ez dagoenez, Urkullurengan jarriko dugu esperantza, noizbait urdazubiarraren gomendioa kontuan hartuko duelakoan



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Dena da botere kontua

NAHI GABE eman dio guardasolaren puntarekin buruan. Bi aldiz eskatu dio barkamen zintzoa, eta bietan erregu tonua nabari-nabaria izan da. Segundo bakan batzuk nahiko izan dira zauritua zaurtzaile bihurtzeko, zaurgarriki. Halako guardasol baten mila puntak marrakatu ko luketen aurpegia utzi izana leporatu dio, kolpetxoak oinaze fisikorik sortu ez badio ere. Botereak eman dio orduan ahotsa goratzeko ahala, bertzearen gainean ezartzeko eskubidea, publikoki oihukatzeak aukera: “Segi zure herrira, hemen mina baizik ez duzue egiten eta.

Baita guardasolarekin ere. Hau da hau!”.

Burumakur alden du da arabiar jatorriko emakumea. Ihesi, uxatua. “Dena da botere kontua” pentsatu duzu une horretan. Emakumea arabiarra ez balitz? Arabiarra emakumea ez balitz? Emakumea eta arabiarra izanik ere, gaztelaniaz solasean trebe moldatuko balitz? Erretorikoa dira arestiko galdera guztiok, jakina. Aski ongi ezagutzen dituzu haien erantzunak, bai eta horiek lotzen dituen hari petrala ere: dena da botere kontua mundu zibilizatuan. ■

